

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2024/11/7

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Azitainbide kalean, 8 eta 10 zenbakien artean, espazio bat dago ibilgailuekin sartzeko; jendeak pneumatikoak lagatzen ditu, hozkailu zaharrak, likidoak... Horren erdian poste bat dago, kolpe jaso duena. Udaltzainek eta ertzainek hor egiten dute beren atsedena. Ba al da txostenen bat egoera guztia salatzen duenik?	Lan-agindua egin zen gune hori errebisatzeko. Auzo guztia aztertu ondoren, eta baita kalean galdetu ondoren ere, esan behar da argi guztiak, baita poste eta farolak ere ondo daudela.
Udaltzaingoa	3 urte daramatza auzokideen bileretara etortzen: Galdetu du Saratsuegi-Azitain bideari buruz: jendea azkarregi doa. Gainera, umeak ere azkarregi jaisten dira Saratsuegitik patinetean.	Abiaduraren informazio-dispositiboa jarri da inguru horretan. Aztertzen ari dira radar bat jartzeko aukera.
Zerbitzuak	Txonta 1. Zenbakia. Kalearen irteera hustubide bat dago Txontako erreka ematen duena. Egun batzuetan, haizeagatik, estoldetatik oso usain txarra ateratzen da. Estoldei dagokienez, trabatu egiten dira. Ez daude garbi.	Lan-agindu bat egin zen (386/2025), sifoi bat jartzeko hustubidean, hala, usainaren arazoari irtenbidea emateko. Ikuskaritza egin ondoren, ikusi da sareta handia dela uren hustubidea egiteko; eta, beraz, ezin dela sifoirik jarri. Trabatuta eta zikin dauden saretei dagokienez, abisua pasatu zen Mankomunitatera, arazoa ahalik eta azkarren konpontzeko, eta etorkizunean kontuan hartzeko.
Udaltzaingoa	Cadenas Iris fabrika, irteeran dagoen burdin hesian, jendeak sarrera apurtu du, eta sartu eta irten ibiltzen da; eta Udaltzaingoa pasatu beharko litzateke, jakiteko zein dabilen barruan.	Enpresako arduradunekin hitz egin da, egoeraz jakinarazteko eta neurriak har ditzaten adierazteko. Edozein modutan, laster berrikuntzak egongo dira toki horretan.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2024/11/7

Saila	Laburpena	
Obrak	Zer gertatzen da Saratsuegin? Kexu da Saratsuegi abandonatuta dagoelako, irisgarritasunaren hobekuntzari dagokionez.	Azterlan bat egiten ari dira igogailu bat jartzeko aukerari buruz.
Udaltzaingoa	Iparragirretik etorrira, inork ez du stop seinalea errespetatzen. Soluzioak eskatzen ditu.	Gai horren inguruko kontrola egiten ari dira.
Zerbitzuak	Orbeako kiroldegiaz kexu da; ea noiz egin behar dituzten hobekuntza-obrak.	Dagoeneko egiten ari dira hobekuntza-obrak kiroldegietan.
Zerbitzuak	Barakaldo 19 kalean bizi den herritar batek kexu bat jarri zuen, jardinak txukuntzeko eskatuz. Bi konpondu dituzte jada.	Euskotreni errekerimendu bat bidali zitzaion belar-sastrakak kentzeko Electrociclosetik Aldatzeko 3. eta 4. zenbakietaraino, Barakaldoko 19. lorategitik eta atzealdetik pasatuz; hau da, jarduketa integrala eskatu zen arazo horiek guztiak batera konpontzeko.
Zerbitzuak	Barakaldo 19 zenbakiaren atzealdea garbitzeko eskatu du. Pribatua da, baina galdetu du ea zerbait egin daitekeen.	Gai korapilatsua da, zeren behin baino gehiagotan garbitu da eta azkenean bizilagunak ohitzen dira eibartar guztien zergekin ordain dadin lursail pribatu baten garbiketa.
Zerbitzuak	Gizon batek duela 4 urte planteatu zuen Elektrocicloseko eraikinean ETSren sastrakak moztu behar zirela. Egin ezazue, mesdez.	Euskotreni errekerimendu bat bidali zitzaion belar-sastrakak kentzeko Electrociclosetik Aldatzeko 3. eta 4. zenbakietaraino, Barakaldoko 19. lorategitik eta atzealdetik pasatuz; hau da, jarduketa integrala eskatu zen arazo horiek guztiak batera konpontzeko.
Zerbitzuak	Barakaldo 21. Zenbakian bizi da. 21 zenbakitik 27ra dauden portxeak Udalarenak dira. Zorua, sabaia eta barandak oso zikin daude.	Erabilera publikoko eremu pribatua da; hala ere, MCMD abisua eman zen eremua sakon garbitzeko (19/03), bai lurzorua, bai barandak; hala ere, adierazi behar da eremu horretan ezin dela

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2024/11/7

Saila	Laburpena	
	Aurtengo duan, Mankomunitateko gizonak garbitu du, eta ez zuen gunea garbitu, bulegoak eta pisuak daudelako.	presiozko urarekin garbitu, iragazgaiztuta ez dagoenez, urak beheko garajeetara pasatuko zelako. Mankomunitatea 19/03: Elektrozikloserako igoeran ere zikinkeria dago. Tunel beltza: Tunela Estaziño-Azitain pasealekuaren obrekin kenduko da.
Zerbitzuak/Obrak	Elektrozikloseko garbiketa faltaz kexu dira; halaber, tunel beltz bat dago, beldurra ematen duena. Eskatzen du hura estaltzeko. Halaber, gauez obrak egiten direnean, egoten den zarataz kexu da. 0}	
Zerbitzuak	Pertsona batek planteatzen dio Mankomunitateari ea zergatik esku hartzen duten soilik dei bat jasotzen dutenean, eta zergatik ez duten noizean behin paseo bat egiten.	Mankomunitateak: Ahal den neurrian, zerbitzu estandarizatuak ditugu. Eskaera premiazkoei erantzuten diegu, eta berrantolatu egiten da zerbitzua hala behar denean, ekimen bereziak indartzen dira...
Hirigintza	Espaloiak ez dituen Matxariako gunea hobetzea eskatzen du (Azitaindik gorako gunea, BOJetik gora).	Bai, Udalak proiektu bat du gune honetarako hurrengo urteetarako. Oso toki deserosoa da oinezkoentzako, eta, horregatik, LJE funtsekin hura txukuntzeko lanak egingo ditugu. Dena den, abandonatutako tailerrak jabetza pribatukoak dira eta haiek eskuratzea inbertsio handia da Udalarentzat.
Zerbitzuak	Zubigain gainean dagoen ura biltzeko hodia apurtuta egoten da askotan. Ura dariola.	Behin baino gehiagotan konpondu da, baina berriz ere apurtzen da, autobusek jotzen dutelako. Geralekua birkokatu behar da eta hori egin ondoren, behin betiko konponduko da teilatu-hodia. Autobusaren geralekua aurreraxeago eraman behar da, jotzeko arriskua kentzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2024/11/7

Saila Laburpena

Hirigintza

Pertsona batek hitz egin du plazatxoa deposituarekin lotzen duen bideari buruz. Orain egin behar den bidea hiru halako da. Udala du bide hauek zaintzearen ardura. Eskatzen du bidea berreskuratzeko.

Txontako urbanizazio berrian, AIBE eta haren ingurua birmoldatuta, eremu horretatik Plazatxora doan mendimazelaren lotura hobetzea aurreikusten da. Bestalde, bidearen jarraipena bermatzeko, goiko aldean espediente bat dago irekita udaletxean.

Zerbitzuak

Pertsona bat kexu da Karmengo parkeko argiaren mantenimendu faltaz. Elektrozikloseko sastrakei dagokienez, esan du edozein egunetan sastraka guztiak aurretik eraman behar dituela kotxearekin.

Toki horretako aplikeak berriak dira. Kanpoko enpresa batek jarri zituen, eta, hain zuzen, arazo honi soluzioa emateko aldatu ziren.

Sasiak

Karmen 4-6 – Iparragirreko ezpondaren sastrakak azpikontratak garbitzen ditu- Uda aurretik egin zen lehen buelta (maiatza-uztaila) eta azaroan bigarrena pasatuko da. Inguru hori guztia azpikontratak garbitu du 2025eko maiatza-uztailean azken aldiz.

Zerbitzuak

Asua Errekan sastraka batzuk errepide erdiraino iristen dira.

Udaltzaingoa

Pertsona batek iradokizun bat egin du Udaltzaingoarentzat: Iparragirren aparkatzeko debekua duen seinale bat dago, baina normalean ez du inork errespetatzen. Beste ibilgailu batzuek ez dute 30 km/h abiadura-muga errespetatzen. Proposatu du plastikozko pibote edo bolardo batzuk ipintzea, gorabeherak saihesteko. Lapurretei dagokienez, esan du 5 lapurreta izan dituela. Karmen kaleko garajeetan eta trastelekuetan ere lapurtu dute.

Inguru horren kontrola egiten ari dira eta zigorrak jartzen ari zaizkie gaizki aparkatzen dutyen ibilgailuen jabeei. Atxilotetak egiten ari dira (azkena, inguru horretan lapurreta saiakeragatik, irailaren 20an). Dena den, pibotak jartzea azken aukera izan behar da, hiria pibotez beteko dugu.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2024/11/7

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Pertsona bat kexu da “Dia” supermerkatuaren zaragatik, kamioiak deskargatzean, goizeko 6:15ean. Galdetu du ea zamalanetarako ordutegia duten.	Establezimenduaren arduradunekin hitz egin da, eragozpenak amaitzeko. Dena den, kamioiak produktu freskoak ekartzen ditu, lehen orduan, bezeroek erosi ahal ditzaten.
Udaltzaingoa	Auzozainaren figura errekuperatzea eskatzen du.	Dagoeneko atera dira oinarriak udaltzain-agentek auzozainen deialdira aurkezteko. Laster jakingo da zerbait.
Zerbitzuak	Asuaerrekako zubia trabatuta dago. Gainera, arropa-edukiontziak jendeak arropa ateratzeko erabiltzen ditu, eta gero arropak lurrian lagatzen ditu.	Arroparen edukiontziek “lapurreten aurkako” ateak dituzte, bereziak direnak barrutik gauzak ez ateratzeko... Baina badakigu horretara dedikatzen diren pertsonak arropa atera eta dena lurrian lagatzen dutela. Abisua jaso ahala, dagoena erretiratzera pasatzen gara.
Zerbitzuak	Zintzilik geratzen diren telefonia-kableak oso itsusiak dira.	Bai, ez dira ondo geratzen. Dena den, Legeak ahalbidetzen die hori egitea. Udaletik behin baino gehiagotan horretaz ohartarazi diogu enpresari bati, ez zaigulako egokia iruditzen kableak horrela lagatzea.
Zerbitzuak	Hijos de Gabilondo eraikinaren obrak foko eta gune ilun batzuk erretiratzeko ekarri du. Gainera, gaueko lanek eragozpenak sortzen dituzte.	Ulertzen dugu lanek eragiten dituzten eragozpenak. Baina batzuetan gauez bakarrik egin daitezke, orduan itzaltzen baitzaie korrante elektrikoa katenariei. Udaletik kexa hauek helarazten dizkiogu enpresari, inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2024/11/7

Saila Laburpena

Zerbitzuak	Urkizuko dorreen inguruan garbiketa sakona egin behar da. Inoiz ez dute zorua behar den bezala garbitzen.	Abisua pasatu zitzaion Mankomunitateari 03/19an. Garbiketa uda aurretik egin zen.
Udaltzaingoa	Kexu da ez duelako auzozaina ikuste, eta Zerbitzuetara deitu behar duelako beti, gorabeheren berri emateko. Halaber, elbarrien txartelen kontrol gehiago eskatzen du eta galdetu du txartelak emateko prozedurari buruz.	Txartelen kontrola egiten da, eta antzematen denean erabilera ez dela egokia, kendu egiten da eta Gizartekintzari horren berri ematen zaio. Auzozainei dagokienez, laster hasiko dira agente berriak lanean.